Debabarrena

Garapen Iraunkorra - Desarrollo Sostenible

| N.º 8. zenbakia | Diciembre 2007ko Abendua |

# 1997-2007, una década de turismo en Debabarrena

***En los últimos 10 años, Debabarrena no ha dejado de progresar como comarca y ha sabido seguir el ritmo del paso de los años. Y el sector del turismo no se ha quedado atrás en este sentido. Así lo ratifica el testimonio de Cristina Iturriagagoitia, responsable del área de Turismo de Debegesa.***

**El turismo en Debabarrena ha cambiado en los últimos años, pero ¿en qué?**

Creo que se han dado varios cambios fundamentales, la mayoría muy positivos y alguno que otro no tanto.

**Empecemos por los más positivos**

Cuando hace 10 años comencé a trabajar en el área de turismo, en la comarca teníamos 8 hoteles de los cuales 2 sólo abrían en verano.

En la actualidad tenemos 13 hoteles, 2 se inaugurarán próximamente y juntos ofrecen 562 plazas abiertas durante todo el año. Hemos tenido un incremento del 37% en plazas hoteles o en pensiones. Además, actualmente contamos con 18 casas rurales y 3 albergues, entre otros. Creo que la dotación de infraestructuras de alojamiento ha reforzado el punto débil de la Debabarrena de hace diez años.

Por otro lado, la apertura durante todo el año de las oficinas de Turismo de Deba y Mutriku ha mejorado la calidad de atención a las y los turistas. La atracción del destino DEBABARRENA se ha reforzado con la apuesta por el turismo cultural y la apertura de varios museos como el Nautilus, Bentalekua, Museo de la Industria Armera y el de la Máquina Herramienta. La oferta de actividades, senderismo… también ha servido para mejorar nuestra imagen y posicionamiento.

Todo esto, junto a la recuperación de puntos estratégicos (miradores, merenderos, playa de Deba…), las obras del puerto de Mutriku, la regeneración del río Deba, la mejora de las conexiones… hacen que Debabarrena siga avanzando en el sector turístico.

**Antes has hecho alusión a algunas cosas que no han sido tan positivas, ¿a qué te referías?**

Me refería concretamente a la desilusión por no poder llevar a cabo el proyecto Ekain II en Astigarribia, que dio al traste con el trabajo realizado durante años por muchas personas que unieron sus voluntades para hacer realidad este proyecto estrella. La superación de este problema nos llevó a buscar otras oportunidades para el turismo en la comarca, en las que sinceramente creo estamos muy bien orientados.

**Si tuvieras que hacer un balance final y una puesta de futuro, ¿que apuntarías?**

En definitiva, diría que en DEBABARRENA se ha realizado mucho trabajo tanto desde las instancias públicas, como por supuesto, desde el empuje y el esfuerzo de todos aquellos promotores y empresarios que han apostado por el turismo; Sin embargo, seguimos teniendo mucho trabajo por delante y apostamos por seguir las directrices del Plan Vasco de Competitividad turística que apuesta por un destino de turismo vasco "multiproducto", lo que encaja perfectamente el claim de la comarca "DEBABARRENA, AUTENTICO PAIS VASCO", y desde donde se desarrolla principalmente el turismo natural y el turismo cultural en su sentido más amplio.

# $CO_2$ dietak Debako familietan

Proiektuaren helburua debako familien gehiegizko energia nahiz ur-kontsumoa kontrolatzea da, ingurunean duen inpaktua arintzeko. Klima aldaketaren aurkako borroka eta ur-erreserben kontserbazioa dira Debegesa eta Debako Udala proiektu honetara lotu dituen motiboak.



Kasu honetan, kiloak galdu beharrean, $CO_2$ eta ur kontsumoa gutxitzean legoke gakoa. Pisua galtzeko dietak pertsonalizatuak diren bezala, beste hauek ere familia bakoitzaren beharrei egokituak izango dira.

$CO_2$ emisioak murrizteko orduan, ohiturak aldatzea eta energia, mugikortasuna, produktuen erosketa eta antzekoetan oinarritzea da bidea. Ur-kontsumoari dagokionez, berriz, eguneroko ohiturak aztertu eta baloratuko dira, bainukoak eta sukaldekoak, besteak beste.

Proiektuaren metodologiak hiru fase marrazten ditu. Lehenengoan, familiek atxikipen-konpromisoa sinatu beharko dute. Ondoren, etxe bakoitzeko analisi sakona egingo dute: etxe-mota, tresnak, erabilerak…, eta isurketak neurtuko dira. Bigarren fasean, isuriak jaisteko bidean ohitura berriak irakatsiko zaizkie familiei. Horrekin batera, aurrezte kit bana oparituko zaie energia aurrezteko bidean lagunduko duten tresna eta baliabideekin. Gainera, gutxieneko taldea sortzeko adina kide bilduz gero, gaiari buruzko tailerrak abian jartzeko asmoa dute Debegesak eta Debako Udalak.

Hirugarren eta azken fasean, berriz, hasierako azterketa eta neurketa berak egingo dira, eta diferentziak alderatu. Fase hauetan guztietan Debegesako teknikari baten laguntza izango dute familiek.

Sei hilabete iraungo duen proiektuaren ostean, etxe bakoitzeko isurketen %5 murrizteko helburua dute antolatzaileek. Gainera, familien poltsikoek ere eskertuko dute ekimena, urtean 125 euro aurreztuko dutela aurreikusten baita.

Oraingoz Debako familietan soilik egingo da proiektua, baina aurrerago inguruko udalerrietara salto egiteko asmoz ari da lanean Debegesa.

# Ecosistema natural en Goitondo




El proyecto Goitondo, impulsado por Debegesa y el ayuntamiento de Mallabia, trata de simular un ecosistema natural en el polígono. Según el equipo responsable del proyecto busca principalmente aprovechar las sinergias existentes entre las empresas ubicadas en Goitondo para lograr una mayor eficiencia global en el consumo de materiales y energéticos y reducir el impacto ambiental de la actividad del polígono.

El proyecto está siendo desarrollado por un equipo de trabajo compuesto por dos Ingenieros Químicos que están desarrollando el proyecto fin de carrera en la UPV, un Ingeniero industrial que esta realizando su tesis doctoral sobre Ecosistemas Industriales en la UPV y el departamento de organización de la Universidad de Mondragón.

Para el desarrollo del proyecto ha sido necesario recopilar información tanto cualitativa como cuantitativa sobre temas tales como la energía, residuos, agua, movilidad etc. En total, se han visitado las 67 empresas, obteniendo la participación de 34 de ellas que representan cerca del 80% de la plantilla del polígono.

Derivado del análisis de los datos recabados, se han detectado varias oportunidades de actuación tales como:

- La creación de un punto de gestión conjunta de residuos inertes en el polígono.
- Posibilidad de obtener ahorros de agua. El 99% del agua consumida es potable cuando un 59% podría ser agua no potable. Existe la posibilidad de lograr un ahorro del 30% del consumo actual de agua potable en 5 años, a través de sistemas de recogida de agua de lluvia.
- En materia de energía, entre otras alternativas se podría destacar la posibilidad de la utilización de cubiertas para paneles solares fotovoltaicos y térmicos. Se ha realizado una clasificación en función de la orientación de cada uno de los tejados y se han priorizado las más idóneas.

En estos momentos se están definiendo y perfilando las actuaciones que en breve plazo se presentaran a los agentes implicados, empresas del polígono, principalmente.

# Presentación Equipo Ciclista Femenino Debabarrena-Kirolgi 2008

Euskal Bizikleta kirol Elkartea pretende dar un paso más durante la temporada 2008 con el objetivo de consolidar el ciclismo femenino Gipuzkoano. Los cuatro años posteriores han servido para formar a las corredoras que se han desenvuelto bien en el calendario internacional, llegando a correr las pruebas más importantes del mundo: Giro de Italia, Tour de Francia... todo ello gracias al acuerdo logrado con el equipo élite-UCI de Bizkaia (Bizkaia-Panda).



Este año el equipo femenino Debabarrena- kirolgi ha solicitado la licencia U.C.I. para participar en dichas pruebas sin depender de otros equipos para poder lograr la invitación para participar.

El día 15 de diciembre a las 12.00 en Portalea (Eibar) se presentará el equipo. En el evento estará presente el equipo técnico, las propias corredoras, patrocinadores, autoridades y aficionados/as al ciclismo. Se aprovechará el evento para ratificar el compromiso de los 8 ayuntamientos de la comarca con el deporte y de promocionar la marca Debabarrena en los lugares que el calendario internacional contempla.

# 2007ko Mugikortasun Astea dela eta...

Aurreko urteetan moduan, irailaren 16 eta 22 bitartean Mugikortasunaren Astea ospatu zen Deba, Elgoibar, Eibar, Ermua, Mallabia, Mutriku eta Soraluzen. Urrian zehar ere aste honekin lotutako hainbat ekintza abian jarri dira Debabarrenean.

Ekimen honen bitartez, herritarren ohiturak aldatuz mugikortasun eredu iraunkorrago baten alde egitea dugu helburu. Horretarako, jada ezagutzen dituzuen hainbat ekintza antolatu genituen: bizikletak konpontzeko tailerrak, irrati-saioa, autoan elkarrekin ibiltzea sustatzeko komunikazio-kanpaina, gidatze eraginkor eta ekonomikorako ikastaroak...

Ekimen hauetan herritarren partehartzea desberdina izan da. Bizikletak konpontzeko tailerretan 17 ikastetxetako 900 ikaslek parte hartu zuten; beraz, partehartze maila oso altua lortu zen. Gidatze eraginkor eta ekonomikorako ikastaroetan, aldiz, goian aipatutako herri guztietan ikastaroak antolatu bagenituen ere, talde bakarra osatu zen eta ikastaroa Eibarren bakarrik eskaini ahal izan zen. Ikastaroak doakoak izan dira baina 15 lagunek bakarrik parte hartu dute eta partehartzaileen %87ak gasolinaren kontsumoa, batezbeste, %8an murriztea lortu dute.

Jakin badakigu lan asko daukagula aurretik, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak beharrezkoak dira baina herritarren partehartzea lortzea ezinbestekoa da Debabarreneko garapen iraunkorraren alde lan egiteko. Aurrerantzean ere modu honetako ekimen publikoak antolatzen jarraitzeko asmoa dugu, baina beharrezkoa da herritarrak ekimen hauen garrantziaz jabetzea eta hauetan parte hartzea.

Guztiok dugu zeresana eta zeregina ingurunea zaintzeko orduan eta mugikortasun eredu iraunkorragoa lortzerakoan. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko apustua guztiona da eta guztion artean lortu beharreko erronka dugu. Kritikak egitea sarritan erraza da eta beharrezkoa ere bai askotan, baina guztiok parte hartu beharko genuke ingurunearen alde antolatutako ekimenetan.

# Sabore, Zapore Debabarrena



Debabarrena kolore ezberdinetako margoek osatzen duten koadroa da. Kolore eta ezaugarri anitz baititu Debabarrenak. Eta ezaugarrien artean antzekotasunak urri direla dirudien arren, elkarren artean egoki ezkontzen jakin izan dute, nortasun berezko batera osotzeko. Izan ere, itsas-herri, landagune eta zona industrializatuek ezer gutxi dute komunean, lehen begirada batean. Baina Debabarrenean industrializazio-garaiak ekarri zituen aldaketa ugariak landa-guneen izaeran txertatzen asmatu izan zuten, gutxi-asko.

Horrek guztiak, nortasunean oinarrituriko garapen eredu bati eman dio bide. Eta turismoaren kasuan, antzeko bidea hartu du gure eskualdeak. Deba eta Mutrikuko hondartza-aisia binomiotik haratagoko helburuen bila abiatuz, turismo-egitasmo berriak jorratzeko apustua egin du eskualdeak. Horren adibide dira urrian ospatu berri diren Debabarreneko V. Turismo Jardunaldietan mahai gainean jarri diren esparru berriak: teknoturismoa eta industria turismoa, alegia. Eskualdeko industriaren garrantzia eta haren balio historikoa kontuan hartuz, turistikoki aprobetxagarriak diren aztertu dute jardunaldiotan.

Hari beretik tiraz, bada beste hainbat esparru interesgarri, oraindik azalera atera ez direnak baina eskualdeko eguneroko bizitzan bizi-bizi dihardutenak: eskualdeko produktuak, alegia. Euskal gastronomia eta euskal sukaldariek berebiziko ospea duten garaiotan, Debabarrenari ere arlo honetan zeresana duela aitortzeko ordua iritsi zaio. Luxu eta propaganda handiko jatetxe eta errezetetatik haratago, jatorrizko eta kalitate ukaezinezko produktuak dira gure eskualdeko merkatu eta sukaldeetan arrakasta lortzen dutenak.

Arestian aipatu bezala, landa nahiz itsas-guneek ez dute hainbeste urteko tradiziorik sakrifikatu behar izan egungo egoerara egokitzeko. Eta etxeko produktuei etekin ateratzea izan da nortasunari eta ekonomiari eusteko aukerarik onena.

Eta hori esatea ez da kea saltzea, inondik inora ere; asko baitira gizartearen errekonozimendua jaso duten eskualdeko produktuak. Mausitxako gaztak izan duen arrakasta, Mutriku aldeko kontserbategien izen ona, gure baserrietako produktuen azokak... eta beste asko dira horren adibide behinenak. Eta izendapen eta errekonozimendu horien guztien gainetik bertoko produktuen kalitatearen alde egitea dugu Debabarreneko garapenerako bidean egindako apustu berria.

Hala, SABORE,ZAPORE proiektu pilotu berria jarri dugu martxan Debegesatik. Proiektu honek eskualdeko produktuak hainbat ibilbidetan banaturik zerrendatuko ditu, Debabarreneko jan-edangarrien erakusleihoa sortuz. Produktu motaren araberako bideak sortuko dira, eta eskualdeko produktu-saltzaile gehienak bilduko ditu proiektuak. Hala, egitasmoak harrera ona badu, zerrenda zehatz eta osoago bat egitera izango litzateke hurrengo pausoa. Besteak beste, gaztagileen, gozogileen, barazki-saltzaileen, edari-produktoreen eta kontserbategien behin behineko bideak zehaztu dira dagoeneko.

Oro har, zuzeneko salmenta bidez funtzionatzen duten etxeei emango zaie lehentasuna proiektu honetan. Zerrenda horrez gain, gainera, elkarrizketak, argazkiak, mapa espezifikoak eta beste eskainiko ditu www.debabarrenaturismo.com web-gunean abiaraziko den proiektuak.



Dudarik gabe, Debabarrena bere horretan dastatzeko aukera bikaina izango dute eskualdera datozen bisitariek.

# Energiaren inguruko irteerak

Debabarreneko irakasleak murgilduta daude Eskolako Agenda 21aren prozesuan eta, proiektu honen 5. edizioan, Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mutriku eta Soraluzeko ikasle irakasle taldeek energiaren gaia lantzen ari dira. Eskolako Agenda 21aren helburuen artean gure bizimoduak sortzen dituen inpaktuak murrizteko irtenbideak martxan jartzea aurkitzen da. Horrela, ikastetxea zein herriaren egoera aztertzen da eta energiarekin lotutako arazoak hausnartu ondoren, arazo horiek konpontzeko aukerak ematea eskatzen zaie ikasleei.

Hori dela eta, azken bi urte hauetan irakasleei zuzendutako ikastaroa antolatu da. Ikastaro hau 2007ko urria eta azaroa bitartean burutu da eta, 2 orduko saio teorikoa eman ondoren, bi irteera burutu dira, batetik, Eolicas de Euskadi enpresarekin burututako "Energia Berriztagarrien Ibilbidea" eta, bestetik, Pasai Donibanen Iberdrolaren Zentral Termikoa bisitatuz.

Lehenengo irteeran, "Energia berriztagarrien ibilbidea" burutu zen, Plazaolako mini-hidraulika, Markinako igerilekuko plaka termikoak eta Oiz-eko parke eolikoa bisitatuz. Irteera hau Mini hidraulikoaren funtzionamenduaz batera hauen ekoizpen datuak ere aurkeztu ziren. Irteera honek, beraz, energia berriztagarri desberdinen ezaugarriak ezagutzeko baliagarri suertatu da, nahiz eta energia berriztagarri batzuk aztertzeke gelditu, geotermikoa, etab.

Bestetik, Pasai Donibanen Iberdrola enpresak duen zentral termikoa ezagutzeko aukera izan da. Pasaiko zentral termikoa 1967. urtean eraiki zen eta erregai fosilak erabiliz (ikatza) energi elektrikoa sortzen du 214,57 MWe-ko potentziarekin. Bertan produzio sistema azaldu zen. Beraz, irteera hauen bitartez energiaren ekoizpenari buruzko ezagutzak handitzeko aukera izan dute.

# Ibaiarte, Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Bloga




2007ko Mugikortasun Astearekin bat, Debegesak garapen iraunkorrerako bloga jarri zuen abian. Topagune honek Debabarreneko garapen iraunkorraren inguruan sortzen diren gaiak elkarganatzeko tresna izan nahi du. Mugikortasuna, Deba ibaia, enpresa munduko ingurumen proiektuak eta beste dira IBAIARTEn jada lantzen ari direnak.

Zure parte-hartzearen zain gaude IBAIARTEn, www.debegesa.com webguneko Garapen Iraunkorreraren atalean. Bota zure ideiak eta kezkak!

# Informazio-panel berriak Ermuko Errekalden

Ermuko Udaleko Ingurumen alorrak bi dibulgazio-panel jarri ditu Errekalden, Berano errekaren hainbat ekologia-aspekturen inguruan. Ibai-zati horretan isuri kutsagarririk ez dagoenez, handia da bertako uren kalitatea: Oxigeno askoko ur hotzak izanik, landare- eta animalia-talde adierazgarri ugari dira bertan.

Berano errekaren bazterretako landarediak berreskuratzen ari den narriatutako erreka-basoko landarediaren ezaugarriak ditu. Kanalizazio-lan eta azpiegituren eraikuntzak landare-estalkian eragindako aldaketak, gainditzen ari dira apurka-apurka landarediaren dinamika naturalaren bitartez. Bi panel horiek hidrologia eta landarediaren inguruko informazioa eskaintzen dute batetik, eta bertan diren animaliei buruzkoa bestetik. Halaber, jarduera hau Ermuko Iraunarazpenerako Ekintza Planaren ezapenekin bat dator.



# Autoan Elkarrekin; balorazioa



Debegesako Garapen Iraunkorrerako Saila Debabarreneko herritarrek autoa parteka dezaten lanean ari da. Azken urte honetan zehar, www.debegesa.com webguneko Kotxean Elkarrekin zerbitzuak 3.500 bisita izan ditu. Egun, 118 erabiltzaile daude erregistratuta; 46 emakume eta 72 gizonezko. Zerbitzua probesten dutenen adin-batezbestekoa 34 urtekoa da. Guztira, 248 bidaia daude zerrendatuta zerbitzu honetan.

Erabilerraza da, gainera, Kotxean Elkarrekin zerbitzua. Aukera honen bidez, zurearen antzeko bidaiak egiten dituztenek osatutako zerrenda ikusi ahalko duzu. Posta elektroniko bidez eurekin kontaktatu ahalko duzu, segidan. Euren lehentasunak, kotxerik duten ala ez, bidaia mota eta beste datu asko egiaztatu ahalko dituzu, elkartrukea errazte aldera. Zure bidaiarekin bat etor litezkeenei mezu elektronikoa bidal zeniezaieke gero. Hori guztia, bat-bateko kontaktu zuzenean. Egin proba eta partekatu kotxea!

# Novedades en www.debabarrenaturismo.com



www.debabarrenaturismo.com ha recibido, en lo que va de año, cerca de 84.000 visitas. La mayoría de los visitantes proceden del ámbito estatal y Madrid, Bilbao y Barcelona, en este orden, son los puntos geográficos que concentran la mayoría de las visitas. Por su parte, Francia, Estados Unidos y Méjico son los tres países que más visitan la web desde el extranjero.

Está claro que las nuevas tecnologías están adquiriendo un protagonismo importante en el ámbito turístico. Conscientes de esta tendencia, el Dpto. de Turismo de Debegesa está trabajando en diferentes iniciativas para reforzar el portal turístico de Debabarrena.

Una de las principales novedades es la incorporación de un servicio como GoogleMaps combinado con otro de fotografías georeferenciadas para mostrar al usuario fotos de la comarca, ubicadas en la posición que se sacaron. Además, toda la información sobre lugares de interés, alojamientos, restaurantes... de la comarca se integrarán en este nuevo soporte.

# El patrimonio industrial y el tecnoturismo brindan interesantes oportunidades para el turismo en Debabarrena y en Euskadi en general.



El balance de las jornadas de turismo industrial y tecnoturismo organizadas por DEBEGESA en Eibar ha sido muy positivo. En esta quinta edición, se ha contado con la participación de cerca de 70 personas interesadas en esta temática. Además, 17 ponentes procedentes de Euskadi, Andorra, Cataluña, Asturias, Francia, Huelva... han presentado sus experiencias y conocimientos en relación al turismo industrial y el tecnoturismo.

Cristina Iturriagagoitia, responsable de Turismo de Debegesa, asegura que "como comarca tenemos más elementos de los que creemos de ser explotados como producto turístico. Euskadi en general, y la comarca de Debabarrena en particular, tiene la oportunidad de desarrollar productos de turismo cultural en base al patrimonio industrial. Son proyectos que tienen un papel importante en la salvaguarda de la memoria colectiva y la autoestima de la población, y si se trabajan desde una perspectiva turística se convierten en elementos de atracción que, bien combinados con otras ofertas (senderismo, gastronomía, paisaje, visitas guiadas a otros lugares y espacios de interés...), dinamizan el territorio en que se realizan".

Las jornadas han constatado la importancia de trabajar de forma colaborativa, en red. Reforzando esta idea, Aurelio González, Director General de Lenbur Fundazioa dejo sobre la mesa una invitación para la creación de un circuito por el Patrimonio Industrial guipuzcoano.

Todos y todas las ponentes y participantes de la jornada han tenido ocasión de visitar durante estos dos días los dos museos industriales de la comarca: el museo de la Máquina Herramienta de Elgoibar y el Museo de la Industria Armera de Eibar. Una vez más el clima de reflexión y de ilusión que se genero en las jornadas dejó las puertas abiertas a posteriores análisis y debates sobre este apasionante tema que es el turismo industrial.